Unai Goikoetxea Nazabal

A maila • **1 saria**



17 urte ditut eta ataundarra naiz. Lazkaoko San Benito ikastolan Batxilergoko 2. mailan ari naiz. Pilotaria naiz eta bertsolari baino bertsozalegotzat daukat nire burua. Sekula ez naiz bertso eskolara joan, nahiz eta oraindik ez dudan aukera hori baztertzen. Txirrindularitza eta motoziklismoa ere ikaragarri gustatzen zaizkit.

AZKEN URTEAN

Bada urte bat mundu osoa
hankaz gora jarri zela
Koronabirus delako hori
bihurtu zen apaingela
Maskarak aurpegian
ta malkoak begian
eskuetan berriz gela
Sarri amestu ohi izan dugu
amets bat bakarrik dela

Gogoan daukat ikastetxetik
bidali gintuztenean
Beldur pixka bat sentitzen genun
etxera sartzerakoan
Ezin ezer ulertu
birusa zegon gertu
Denak ezinegonean
Ikusi ezin genuen gaitza
zebilen gure artean

BERTSOAK

Halako baten atera ginen
kartzela izan zenetik
Haize pixka bat hartzeak ez zon
egiten inongo txarrik
Hasieran hurbildu
ta geroago bildu
erabat nahastuegirik
Ta horren erruz jarraitzen dugu
oraindik irten ezinik

Batzuk edozer iteko kapaz
direla uste ohi dabe
Asko sufritzen ta eurak festan
lasai eta lotsagabe
Kontzientzia eza
eta milaka kexa
hamaika ekintza grabe
Ta beste batzuk zenbat plan eder
utzi ditugu in gabe

Hamaika muxu ta besarkada
galdu zaizkigu bidean
Martxa honetan jarraituko deu
hoiek eman ezinean
Bihotzak badu minik
eta indarra barik
ingurukoak antzean
Pentsa zer poza hartuko degun
egoera hobetzean

Nahiz eta ez den horren erraza
neurri denak betetzea
Denon ardura da ondokoa
Ahal den onena zaintzea
topikoa den arren
ez daigun egin erren
joan gaitezen aurrera
Guztion nahia baldin badugu
lehen bezala bizitzea